

## KRONIKA > NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

# JULIO SOTO, HAIZEAK HOSTO BAT NOLA, IRUÑEKO FINALERA DARAMA BERTSOAK

Amagoia MUJKA

**J**ULIO SOTOK PILATU ZITUEN PUNTU GEHIEN BERRIOZARKO FINALERDIAN, 520,5 PUNTU GUZTIRA, BIGARREN GERATU ZEN SAIOA ALKAIZAK BAINO 40 PUNTU GEHIAGO. BERTSOA EZ DA MATEMATIKA, BAINA ZENBAKIEN ZIRRIKITUETAN SUMA DAITEKE SOTOREN ESKARMENTUA, BERTSOA JOSTEKO ERABILTZEN DUEN HARIAREN FINA. KANPOAN HOTZ ETA BARRUAN BERO, BERTSOLARI DENEK MAJO EGIN ZUTELAKO LAN HITZAREN SUA PIZTUTA IZATEKO.

Berriozarko Entzunaretoan, bigarren finalerdia. Eneko Fernandez partez, Julio Soto. Osasun kontuengatik, bigarren ez atzera behar izan du Fernandezek bere parte hartzea. Dena ondo, datorren asteburuan Leitzan ari-tuko da, azken finalerdian.

Horregatik esan zuen hasieran agurrean Julio Sotok «Leitzatik nakar Berriozarra haizeak hosto bat nola». Eta airean marraztu zuen saioa egungo txapel-dunak, ideiak eta joskerak hari-rik finenarekin harilkatuz.

Saioa goran amaitu zuen, kartzelakoan dotore arituz. Hauxe zuten bakarka aritzeko gaia: Ustez gaindituak zenituen beldu-rrak itzuli zaizkizu. Egoera hau-xe igo zuen oholtzara Sotok: «Baldintza bat du gure gizonon homosexualitateak/ berez ume-dun ezin gelditu ezin bete tripa-peak/ eta luzaro hausnartu genu-n nik eta senar maiteak/ ireki behar al genizkion adoptatzei-ateak/ baina balantzan jarri oste-an mesede eta kalteak/ nire bel-durrez ezetz izan zen ta egin gin-itun pakeak/ baina berriro ikaratu nau guraso ez izateak».

Aurretik, arratsaldeko ertze-tako bat zortziko txikian altxatu

zuten Sotok eta Sanjurjok. Soto, piano ikaslea eta, Sanjurjo, irakaslea. Klasea bukatzerakoan Sanjurjok laugarren astez jarraian etxerako lan gisa ariketa bera errepasatzeko esan dio Sotori. Soto hasi zen, «nahiz ta saiatzen naizen ari eta ari/ bada-ki ez dudala talentu ugari/ lau-garreno aldikoz etxera Vivaldi/ autoestima altxatzeko onena, bi-ba hi». Sanjurjok «...Vivaldi ona genu-n eta dotorea/ baina zu izango zara bera baino hobea», erantzun zion. Sotoren erantzuna, «Hori pentsatze hutsa ze erreparoa/ izango litzateke gau-za arraroa/ nahiz ta bost hatze-tan dauden sola eta doa/ behar dut teklatu bat luzexeagoa». De-taille distiratsu horiekin luzitu zen Soto atzo. Sanjurjoren erre-matea, «Mozarti obra dena diogu ostua/ baina beti ataka hor-ren da estua/ hasi zaitze lanean nahiz ez den justua/ edo bertze-en gisan jo zazu txistua».

Saioa Alkaiza izan zen bigarre-na. Saio orekatua osatu zuen eta asmatu zuen gora salto egiten, arrazoi arrazoiaren gainean.

**Datorren  
igandean  
izango da azken  
finalerdia  
Leitzan. Bertan  
itxiko da  
finalisten  
zortzikotea.  
Oraingoz,  
Lazkoz eta Soto**

Ezkerrean, Julio Soto eta Saioa Alkaiza hizketan saioan zehar. Lehen bi postuak horientzat izan ziren. Lerro hauen azpian, Berriozarko Entzunaretoa atzo arratsaldean. Wigo URIZ | FOKU

Adibidez, zortziko txikikoa modu dantzarian osatu zuten Mikel Lasartek eta biek. Hauxe zuten gaia: bikotea zarete; lehen aldiz dantza latinoen klase bate-ra; Mikelek segidan hartu du erritmoa, baina Saioa erabat gel-dirik dago. Lasartek ondo ireki zuen bidea. Hauxe, bere lehena: «Gerría mugitzea da lehen baldintza/ ta Saioa oraingoz ongi etzabiltza/ aditu erritmoa, alaitu bizitza/ hau dantza dugu eta ez bertsolaritza». Eta, Alkaizak, erantzun: «Bertsotan nahiz nabilen dohaiez beteta/ gaur gaizki media buelta eta pirueta/ saltsa eta batxata, ni penaz beteta/ bi ezker oinekin jaio nintzen noiz-bait eta».

Saioan aurrera, hamarreko txikian oso txukun aritu zen Alazne Untxalorekin batera. Bi ahiz-pen azalean aritu ziren. 88 urteko aittak bizio bakarra du; egunean zigarro bat erretzea. Eta medikuak kendu egin nahi dio. Untxalo medikuarekin lerratu zen -tokirik zailena akaso- eta Alkaiza, ez. «Bizitza osoan erre-tzaile gisa/ ez tulka arnasten du

### SAILKAPENA

1. Julio Soto Ezkurdia ..... 520,5
2. Saioa Alkaiza Guallar ..... 480,5
3. Josu Sanjurjo Alzuri ..... 474,5
4. Alazne Untxalo Erregerena ... 428,5
5. Mikel Lasarte Cia ..... 422
6. Patxi Castillo Graciarena ..... 414,5





ta eztulka hitza/ nahiz ta orain uztea litzaken bortitza/ medikuak eman du onuraren giltza/ kalitatez bukatu dezala bizitza», ireki zuen bidea Untxalok. Alkai-zak, erantzun, «Fabrikan gure aitak langintza bortitza/ ta orain kalitatea, apez batek gisa/ duca-dosa giltza baita haren argi printza/ sua, kea, txinparta alaitzeko grisa/ biziorik ezean zer dugu bizitza».

Eta kartzelakoan errematea eman zion ondo osatutako saioari. Hauxe, Alkaiak irekitako bidea, «Hogeita hamar urte dauzkat, batzuen ustez gaztea/ baina barnera datorkit ezina eta desgastea/ eguneroko ogia delako antsietatea/ lepoa estutzen didan nere buruko katea / nere burua da orain nerontzako kaltea/ mamuak bueltatu zaizkit zer nahi duzu esatea/ ez baita gauza xamurra depresioa izatea».

### Sanjurjo, hirugarren

Josu Sanjurjo, ariketaz ariketa, pauso seguruz aritu zen. Lurretik, oso sinesgarri, entzuleekin askotan konektatuz. Kartzelakoa polito osatu zuen. Sanjurjoren lehena: «Larunbat gaua iritsi eta gazte guztiak egarriz/ Alde Zaharrera abitu gara musika polita jarritz/ horretarako da larunbata / garagardea edo kubata/ muturra kolore gorritz/ iragan beltza dut maitasunez eta pasatu nun orritz/ baina ezin da etorkizun hau bilatzen hasi igerriz/ hortxe agertu da Nabarrerria/ barra ertzean, taberna erdian/ hasi berria zait irriz eta beldurtu naiz berriez».

Laugarrena, Alazne Untxalo, oso txukun. Aurretik aipatu bezala, hamarreko txikiko ariketan biderik maldatsuna egokitu zi-

tzaion, baina ondo konpondu zuen, saioan barna erakutsitako orekari eutsiz. Kartzelakoan putetxe batean kokatu zen. Hauxe, bigarrena, «Putetxe hartan zuden hamaika bezero/ ministroak, apaizak, gazte zein bankero/ orain erdi ahantziak, hamaika endredo/ bizitza berri batek hartu bainau bero/ bizitzan bolantea hartu eta gero/ etxeak garbitzera/ noa ni goizero/ bizitzan bolantea hartu eta gero/ beldu-rra atzean da, enuen espero».

Mikel Lasarte, bosgarrena eta Patxi Castillo, seigarrena. Mikel Lasartek eutsi egin zuen ariketa guztietan, askotan kantukideari bideak irekiz. Castillok, bere aldetik, asmatu zuen gaiari begiratzeko tokietan.

Zortziko handian elkarrekin aritu ziren, eztabaida interesgarria jarriz mahai gainean. Adinean aurrera joandako bi lagun ziren, sasoiko, bakoitza bere etxean bizi zen eta garbi zuten ez dutela zaharren egoitza batera joan. «Bizitza osoa pasatu dugu egurrean jo eta ke/ baina adinez kostatzen zaigu gure osasuna bitarte/ halare hemen baserri hontan nahi dut hiltzen naizen arte/ zahar etxean sartu ezkerro bizitza kentzen didate», hasi zen Castillo. Elkarrekin ariketa sinesgarri josita, Lasartek amaiera egokia eman zion, «...ongi moldatu ahalko naiz ni nire seme-alabekin/ edo arazotan baldin banago eta igual zu ere berdin/ etorri zaitetz nire etxera bizitzeko elkarrekin».

Kartzelakoan bizitza osoan dietan dagoenaren ahotik aritu zen Castillo. «Loditasuna bizi dezake norberak bere buruan».

Azken finalerdia Leitzan izango da, datorren igandean.

